

Hobetuzen "heriotza"

Hobetuz –sindikatu, patronal eta administrazioak 1995ean EAEko langileak profesionalki hezteko erakundea– hil da. Lan harremanetarako euskal esparruaren sorrera eta lehen pausoa izan nahi zuenari labankada hilkorra sartu dio Administrazioak, batik bat Ibarretxe lehendakariak eta EAKo kontseilari Tontxu Campos eta Joseba Azkarragak. Joko arauak hautsi dituzte gehiengoek dagokienez. Madrilen erabakietara makurtu dira. Etengabeko Prestakuntzarako Fundación Tripartita espainiarraren arauak onartu dituzte, Hobetuzek (gehiengo sindikala dute ELAK eta LABek) hala nahi ez izanda ere. Hezkuntzak Estatutuan jasota dagoen transferentzia defendatzeari uko egin dio. Horrenbestez, Madrildik etorritako finantziarioa onartu dute, eta horrela, gehiengo sindikal espainiarrak Euskal Herritik urruti erabakitakoari men egingo diote. Eredu espainiarra onartu dute, Etengabeko Prestakuntzan ustelkeriaren eta eskandaluaren adibide dena. Espainiaren ordezkariatza izatea onartu dute, bestek erabakitakoa egiteko. Hobetuz Espainiar Estatuko Administrazioaren leihatila bihurtu dute, Madrilen sukurtsal. Non dago euskaldunok dugun erabakitzeko eskubidearen aldeko Ibarretxeren propaganda? Edo erabaki esparruaren errespetuaren aldeko propaganda? Hitzak dira gauza bat eta beste gauza bat ekintzak. Hobetuzekin egindakoek erakusten dute nolako borondate politikoa dagoen: esparru ekonomiko euskaldunaren aurkakoa. Nahiz eta kontrakoa dioten.

Juan Mari Arregi

Supermodeloa frasieraren aldeko kanpainan

DOUTZEN KROES 22 urteko L'Oreal-en aurpegi ofizialetakoa da eta modelo gisa sekula gehien irabazi duen herbehereetarra. Frasieraren Afük erakundeak *Praat mar Frysk* (*Hitz egin frasieraz*) kanpainan parte hartzeko eskatu dio. Modelo gazteak badaki ospetsua delako jendeak entzun egingo diola eta egoera hori frasieraren alde baliatzeko prest dago. Berak esana da: "Frisiera zein polita den erakutsi nahi diot jendeari, eta gure hizkuntzaz harro egoteko arrazoik guztia daukagu". Beste kanpaina batean ezpain puzgarriak zabalduko dituzte *Praat mar Frysk* leloarekin eta Kroesek mundu osoan argazkiak aterako ditu ezpain horiekin.



Auzitegi Gorenak Nafarroako Gobernuaren plana baliogabetu du

ESPAINIAKO Auzitegi Gorenak baliogabe utzi du Nafarroako Gobernuak 2000. urtean onartutako eremu euskaldunetarako hizkuntza plana. Epaia dioenez, erakunde publikoetan euskara eskatzeak edo hura ezagutzea meritu bezala hartzeak ez ditu baztertzen euskaraz hitz egiten ez duten herritarrak. Halaber, Auzitegiaren esanetan, administrazioari dagokio euskararen erabilera bermatzea.

BAHEA

Uxue Alberdik *Euskoenews Gaztean* esanak: "Nik ez dut gure hizkuntzak 40 milioi hitz izatea behar euskara baliagarria eta kontuan hartzeko moduko hizkuntza dela pentsatzeko. (...) Hizkuntza txikien kontra egiten dutenak ezjakinak dira edo, hori guztia jakinda ere, gorrotoak bizi ditu, eta kultura edo giza talde horiek desagerraraztea eta historiatic ezabatzea dute helburu".

Jantziak, osagarriak...

615 73 21 12

Deitu eta katalogoa eskatu !!!

www.istilu.com

EAEko Euskararen Legea: datozen 25 urteetako erronka

MAPUTXEAK, AIMARAK, maiak, kitxuak eta Hego Amerika eta Afrikako hizkuntza eta kultur gutxitueta-ko zenbait ordezkari izan ziren duela bi aste ARGIAko esperientziaren berri ezagutzen. Garabide elkartearen eskutik, euskalgintzako beste hamaika enpresa eta erakunde eza- gutzen ari dira Euskal Herrian. Konparaketa orokor eta azkarra eginda, euskarak duela 40 urte bizi zuenaren antzekoa izan liteke haien hizkuntzak gaur egun bizi duen egoera. Konparaketak eta erreferentzia gune izateak ematen digu halako harrotasun puntua, kontuz ibili ezik harrokeria ere bihur daitekeena.

Katalunia edo Quebeceko ispiluetan begiratzea gehiago kostatzen zaigu. Egunerokoan euskaraz bizi nahi dugunok non eta nola gauden hobeto erakusten digu. Eta gaztelaniak, frantsesak eta ingelesak gurean bizi duten egoerarekin txintxo erkatuz gero, gure biluztasunaz ohartzen gara. Egunerokoan euskaraz bizi nahi dugunok bederen.

Komunitatearen zentzu ertsia erabili nahi gabe, abertzaletasuna nagusi da EAEn eta agian Euskal Herrian ere bai. Euskal hiztunen

komunitatea, ostera, minoria da, eta abertzaletasunak gaizki darama errealitate hori, "hainbeste gara eta hain onak..." Zeresanik ez abertzale- tasun instituzionalari buruz.

Berrikuntzaren gizarte honetan, elekatresnen munduan Electrolux eta Bosch-ekin konparatu behar da, haiekin lehia egin eta lehen lerroan kokatzeko. "Jan edo jango zaituzte", oihaneko legea. Edo kutxen fusioa beharrezkoa da BBVA, Caixa edota Société Généralei aurre egiteko. Lehen mailan egoteko. Garraio ereduarekiko lehentasunetan zeresanik ez, AHTren eztabaida lekuko. Berrikuntzaren ize- nean, denetan diru inbertsio itzelak egitea eztabaida ezina da.

Jakin nahiko nuke zenbat indar metatze eta diru beharko litzatekeen euskal kultura (euskararen kultura), ingelesa, gaztelania eta frantsesare- kin lehiatzen jartzeko. Lehian Euskal Herrian, jakina. Zeren eta, oihaneko araua betez gero, lehiatu ezean jango gaituzte.

Maioriaren epelean ohitu denak nekez nahi izaten du minorien hotza. Horixe da gehiengo abertzale eta eus- kaldun funtzional osoaren arteko kon- traesan nagusia. Nik ere zinez

sinsten dut euskara ez dela inoren patrimonio, euskal kultura maite eta errespetatzen duen orok du ondare horrekiko ardura. Baina zerbait sines- ten badut zera da, euskara zerbait bal- din bada, euskaraz bizi nahi dugunon hautu eta eskubide dela.

Botere publikoaren eta herri boron- datearen arteko uztarria ondo bidera- tuz gero noraino iritsi daitekeen era- kutsi du EAEko Euskararen Legeak azken 25 urte hauetan. Potentzialki legearen indarra erakutsi du, pozarren dagoenarentzat izandako lorpenenga- tik, eta salatzen duenak egin litekee- na erakusten duelako.

Lortutakoa asko dela ez dago zalantzarik, gehiago egin zitekeela ere egia da. Eta lorpenen eta ero- sotasunaren epelean badenik ere ezin uka. Minoriak maioria bihur- tzeko eskubidea du, beti ere herri borondatean oinarritzen bada. Baina hori baino eskubide garran- tzi suagoa ere badu minoriak: bere gutxiengo ezaugarrietan maioria- ren errespetuarekin elkar bizitzeko eskubidea. Euskara garatuen dago- en lekuetan ere, oraindik azken egoera honetan gaude. Horra dato- zen 25 urteetako erronka.

*"Euskararen Egun"-ik
beharko ez dugun egunaren alde*



Euskara
Batzordea